

TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA-GIPUZKOA FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa-Gipuzkoa Fundazioa.

IFK

G20772943

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Ez da aplikatzekoa.

Sorrera

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 2002ko martxoaren 20an eratu zen eskritura publiko bidez. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen ["Fundación Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos-Gipuzkoa" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2003ko otsailaren 28ko AGINDUA](#) betez.

Sail-atxikipena

Osasuna.

EJSN

8690 Beste osasun-jarduera batzuk.

Fundazioaren xedea eta helburua

Osasun-zentroei odolaren eta giza ehunak ematea eta hornidura sustatzea du helburutzat, Osakidetzaren Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroarekin elkarlanean, eta zentro horrek ezarritako programa eta jarraibide teknikoen barruan.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak.

Fundazio-zuzkidura

807.554 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

Fundazioa eratzeke, "Patronato Rector del Banco de Sangre de Gipuzkoa" elkarteak bere ondasun material guztiak ekarri zituen ondare-hornidura gisa, eta horrela fundazioari erakunde fundatzailearen eskubide eta betebeharrak subrogatu zitzaizkion Gipuzkoako Odol Bankuaren kudeaketari dagokionez. Horrenbestez, bazkideek kontzeptu horretarako egindako ekarpenek osatzen dute fundazio-zuzkidura, baita horretarako metatutako emaitzek ere.

Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritza eta kontroleko eskumen guztiak. Zehazki, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak kudeatuko ditu. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Patronatuko kideak:

Miguel Ángel Vesga Carasa jauna	Presidentea. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua.
Rafael Uribarren Axpe jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Txelo Pérez Martínez andrea	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Sabin Urcelay Uranga jauna	Gipuzkoako Odol-emaileen Elkarte.

2012ko ekitaldiko urteko kontuak

[2012ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	1.269.455 €
Ondare garbia	858.882 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	55

Sozietatearen helbidea

Zuatzu hiribidea, Easo eraikina 4, 4.-7. beheak, 20018 – Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

Webgunea

Ez dago eskuragarri.